

**HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARIA.
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

JOSEBA LOZANO SANTOS

EUSKO JAURLARITZAREN EKIMENA HERRITARREN HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN DEFENTSAN

Giza eskubideak errespetatzea eta babestea da gizarte aurreratu eta demokratikoetako bizikidetzaren oinarri nagusietakoa. Era guztietako eskubideak. Eta eskubide horien artean daude, zer esanik ez, hizkuntza-eskubideak.

Legediak hainbat hizkuntza-eskubide aitortzen dizkigu Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarroi. Lege horien barruan aipatzekoak dira, beste askoren artean, Espainiako Konstituzioa (1978), Autonomia Estatutua (1979), Euskararen Legea (1982) eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (1992); are zehatzago: esparru publikorako, Funtzio Publikoari buruzko Legea (1989) eta 86/1997 Dekretua; eta pribaturako, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzko Legea (2012) eta hura garatzeko 123/2008 Dekretua.

Legeak aitortutako hizkuntza-eskubide horiek guztiak bi zutabe nagusitan oinarritzen dira, nire iritziz. Lehena: EAEko herritar guztiei hizkuntza-eskubide berak aitortzen zaizkie, inolako bereizketarik egin gabe eremu geografikoa edo soziolinguistikoa gorabehera. Alde horretatik, Navaridasko herritar batek, esate baterako, Abaltzisketako beste herritar baten eskubide berak dauzka. Irizpide hori erabakigarria izan da euskararen normalizaziorako; azken batean, zonifikazioari edo hiztunen erreserbak sortzeari bizkarra ematea izan da, nire ustez, EAEko normalizazio prozesuaren aurrerakadaren giltzarria, aitormen hori behar baino gutxiagotan egiten bada ere.

Eta zein da gure eskubideen bermerako bigarren oinarria? Bada, kontzeptu honen inguruan lortu den adostasuna, alegia:

hizkuntza-eskubideak herritarrei dagozkiela beti; eta eskubide horiek bermatzea eta bermatzen direla ziurtatzea, erakunde publikoei, eta neurri apalagoan, eremu sozio-ekonomikoko zenbait erakunde pribaturi.

Hori horrela izan arren, jakina da gauza bat dela eskubideak formalki aitortuak izatea, eta beste bat, oso bestelakoa gainera, aitorturiko eskubide horiek bene-benetan bermatuak izatea. Beste era batera esanda: legezko berdintasun formala ez dator beti bat benetakoa berdintasun sozialarekin. Hori ez da bakarrik gertatzen euskararekin; tamalez, beste hainbat esparrutan ere legezko aitortpenak talka egiten du egiazko egoerarekin. Horren ondorioz, euskaraz bizi nahi duten herritarrek egunero-egunero eta han eta hemen sentitzen dute urratu egiten zaizkiela legez dagozkien hizkuntza-eskubideak, eta hala adierazten digute urtero jasotzen ditugun salaketek (ELEBIDEn, esaterako, 1.070 salaketa jaso ditugu azken hiru urteotan). Horrek esan nahi du gero eta gehiago urratzen direla hizkuntza-eskubideak? Nire ustez, ez. Horrek esan nahi duena da oraindik lan handia egin behar dugula, euskaraz bizi nahi dutenen hizkuntza-eskubideak osorik, beti eta eragozpenik gabe errespetatu daitezen, hala esparru publikoan nola pribatuan.

Eta esparru bi horiek ezaugarri ezberdina dituztenez, bereizi egingo ditugu hemendik aurrera. Heldu diezaiogun, bada, lehenengo eta behin Sektore Publikoari, Sektore Pribatua gerorako utzita.

SEKTORE PUBLIKOA (HERRI-ADMINISTRATIOAK, SOZIOZIBILIZAZIOAK, PARTZUERGOAK, FUNDAZIOAK...)

Sektore Publikoan herritarren hizkuntza-eskubideen urraketarako arrazoi nagusiak aztertzen baditugu, berehala konturatuko gara bi izaten direla ohikoenak. Hona hemen, jarraian:

- a) Herritarrei zerbitzua eman behar dieten zenbait langilek eta arduradunek, euskaraz jakin arren, gaztelaniaz artatzen dituzte herritar euskaldunak.
- b) Langile eta arduradun batzuek ez dakite euskaraz, eta gaztelania erabiltzen dute herritar euskaldunetikiko komunikazioetan.

Lehenengo multzoari dagokionez, argi dago hainbat faktorek eragiten dutela herritar euskaldunen aurrean hizkuntza bat edo beste bat erabiltzeko orduan. Azter ditzagun garrantzitsuenak:

- Erakundearen arduragabekeria hizkuntza ofizialen erabilerarekiko (erakundeak ez dio argitu langileari noiz, norekin, zein hizkuntzatan egin behar duen).
- Norberaren hizkuntza-gaitasuna (langile eta arduradun asko errazago moldatzen dira gaztelaniaz euskaraz baino).
- Lanpostuari dagozkion ikasketak erdaraz egin izana (batzuentzat hori eragozpena izan daiteke euskaraz lan egiteko).
- Erakundea kokatuta dagoen lurraldearen egoera soziolinguistikoa (oso erdalduna denean, zenbait langilek erdalduntzat jotzen dituzte haiengana hurbiltzen diren herritar guztiak).
- Urte askotako inertiak eta ohiturak.



Zorionez, egoera hori aldatzen ari da, erakunde guztiek onartu dituzten erabilera planei esker. Plan horietan, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak zehazteaz gain, herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko aldarria egiten da, langileek herritarren hizkuntza hautuaren arabera jardun dezaten uneoro.

Bigarren multzoari erreparatzen badiogu, hain zuzen ere, euskaraz ez dakiten langileen multzoari, esan beharra dago hemen ere goitik behera aldatzen ari dela Sektore Publikoko langileen hizkuntza-gaitasunaren egoera azken urteotan. Datu batzuk ekarriko ditut hori frogatzeko: 1990. urtean, % 23,5 ziren euskara, gehiago edo gutxiago, ezagutzen zuten langileak EAEko administrazioetan; 2017an, berriz, kopuru hori % 70,7ra igo da, eta gora jarraitzen du etengabe. Bidean, esan dezadan gure administrazioetako kargu publikoen % 70 inguruk aitortzen dutela euskaraz hitz egiteko gai direla. Beste datu bat, oraingo honetan Ertzaintzari dagokiona. 2017an, 380 plaza atera ziren 27. promozioan. Bada, aurkeztutako hautagaietatik % 70ek bazeukan egiaztatuta eskatzen zitzaion maila (Europako Markoaren B2 maila); % 21ek bazuen goragoko maila bat (C1); eta % 6k, behegoko maila bat (B1). Horrek esan nahi du azken promozioiko hautagaien ia % 98k euskaraz bazekiela

hermes

neurri batean edo bestean. Hau ez da bakarrik gertatzen Ertzaintzan. Eskaintza publikoetara aurkezten direnen artean, gero eta gehiago dira euskara titulua dakartenak edo hura egiaztatzen salbuetsita dauden hautagaiak. Datuek esaten digute gure administrazio eta erakundeetara langile eta arduradun gazte asko etorriko direla datozen 10-15 urteotan, erretiroak direla-eta; esaten digute, era berean, langile berri horietatik gehienak elebidunak izango direla, eta gaitasuna izango dutela hizkuntza ofizial bietan lan egiteko. Hori aukera paregabea izan daiteke, eta behar du izan, azken hamarkadan sustatzen ari garen euskararen erabilera indartzeko. Erabilera baita gure helburu nagusia. Horri begira, harrera linguistikoa egiteko protokoloak aktibatzen ari dira erakunde gehienetan.

Gauza bat edo bestea, kontua da EAEko herritarrek beste edozein eremutan baino neurri handiagoan erabiltzen dutela euskara Administrazioarekiko harremanetan. Ikus ditzagun ondoko datuak:



Grafikoek adierazten dutenez, Administrazioa idatziz jotzen duten herritarren % 30ek euskaraz edo ele bitan egiten du; eta kopuru hori are handiagoa da komunikazioa aurrez aurre gauzatzen denean edo telefono bidezkoa denean. Kontuan hartzen badugu 16 urtetik gorako euskaldunak % 34 direla gure erkidegoan (eta horiek direla Administrazioarekin harremana izan ohi dutenak), ondorioztatu daiteke euskaldunek administrazioetara euskaraz jo ohi dutela, badakitela gure administrazioak, oro har, beren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko gai direla eta ahaleginak egingo dituztela eskubide horiek benetan eta zintzotasunez errespetatzeko.

Hori bermatze aldera, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko erakundeek 2018an zehar onartu

dituzten erabilera plan gehienetan, helburu hau jasotzen da: plangintzaldi honen amaieran (alegia, 2022an) herritarren hizkuntza-eskubideak % 100ean ziurtatzea. Ikusten denez, erronka handia da, batez ere, kontuan izanik gaur egun huts egiten dugula idatziz % 10ean eta ahoz % 22an.

Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria ez da prozesu horretatik kanpo geratu. Sektore Publikoko erakunde batek Bikainen oinarrizko maila atera nahi badu, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu ezinbestean.

Honaino helduta, utzi dezagun Sektore Publikoa alde batera, eta heldu diezaiogun Sektore Pribatuari.

SEKTORE PRIBATUA

2008. urtean, Kultura Sailak onartu zuen, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin batera, 123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Erabiltzaile eta Kontsumitzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzkoa. Dekretu horren bidez, 6/2003 Legearen II. Tituluko VII. Kapitulua aipatzen dituen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak arautzen dira, eta, aldi berean, enpresa, erakunde eta establezimenduen hizkuntza-betebeharrak zehazten.

Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko, baita Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko, baina ezarritako progresibotasun-baldintzen baitan dago eskubide hori egiaz gauzatzeko.

Hona hemen Dekretuaren ezarpen-eremua:

- 1.- Erakunde publikoak, zerbitzua edo produktuak zuzenbide pribatuko araubidearen arabera ematen dituztenean.
- 2.- Legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoriatan batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona juridikoak:
 - a) Komunikazio-operadoreak.
 - b) Trenbideko garraio publikoko zerbitzuak.

c) Errepideko garraio publiko erregularrako zerbitzuak ematen dituzten enpresak.

d) Aire-garraioko zerbitzu erregularrak.

e) Energia elektriko hornitzen duten banaketa-enpresak eta merkaturatze-enpresak.

f) Gas naturala merkaturatzen duten enpresak.

3.- Produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduak, baldintza hauetakoren bat betez gero (>250 langile, urtean >50 milioi euroko negozio-bolumena, jendeari saltzeko gunearen azalera >400 m² hiriburuetan edo elebidunen proportzioa % 33tik gorako tokietan, bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak >15).

4.- Merkataritza-establezimendu kolektiboak.

5.- Kreditu-erakundeak.

6.- Etxebizitzak saldu edo alokatzen dituztenak edo eraikuntza-obren sustatzaileak.

Dekretua 2008ko uztailaren 17tik aurrera jarri zen indarrean, negozio-motaren arabera hizkuntza-betebeharrak zehazten ditu jendaurreko ahozko eta idatzizko harremanetan, eta urtebete eta lau urte bitarteko epea ezarri zien enpresei egin beharreko egokitzapenak egiteko.

HPSk bi dirulaguntza deialdi sortu ditu berariaz 2008-09 eta 2015-16an Dekretuaren eraginpekoentzat; halaber, doako itzulpen-zerbitzua ere eskaini die, erabiltzaile eta kontsumitzaileei eskura jarri beharreko informazio eta dokumentazioa euskaraz ere izan ahal izateko.

Horretaz gain, hainbat lankidetzak-hitzarman sinatu ditugu kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatu ahal izateko: 2006an, sindikatuarekin, telefonia-enpresekin, enpresarien elkarteekin; 2015ean, EAEn nagusi diren finantza-entitateekin (Bankoa, CaixaBank, Kutxabank, Laboral Kutxa, BBVA, Rural Kutxa, Popular, Sabadell Guipuzcoano eta Santander); eta 2016an, merkataritza-arloko hainbat enpresarekin (Carrefour, El Corte Inglés, Eroski, Fnac, Forum Sport, Media Markt, Mercadona, Simply, Uvesco eta Inditex).



hermes

2014an, Dekretuaren betetze-maila neurtu zen, eta betetze-maila % 22an zegoen, baxuegia ezarritako helburuak betetzeari begira. Dekretuaren eraginpekoen egoera aztertuta, argi ikusten da finantza entitateek dutela betetze-maila altuena; baxuena, ordea, merkataritzan (% 6) eta higiezin agentzietan (% 2) izaten da. 2020. urtean bigarren neurketa egiteko asmoa dago, aurrekoa baino zehatzagoa.

Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen duen 162/2017 Dekretuak hizkuntza-eskubideak bermatzeari buruzko berrikuntza bat



ekarri zuen aurreko dekretuaren aldean. Izan ere, 2017tik aurrera indarrean dagoen Dekretuak dioenez, ebaluaketara aurkeztutako entitateek ezingo dute Bikain ziurtagiri-maila bat eskuratu baldin eta euskara alorrean legeriak ezartzen dizkien betekizunak bermatzen ez badituzte.

VI. Inkesta Soziolinguistikoa jasotako emaitzen arabera, 2016an, 1991n baino 212.000 euskaldun gehiago zeuden EAEn 16 urte edo gehiagoko herritarren artean. Begi-bistakoa da gaitasuna badagoela, baina lortu behar dena da gazte horiek gaitasuna ez galtzea lan-mundura sartzen direnean, eta garrantzitsuena, aukera

izatea euskaraz lan egiteko. Datu horiek ikusita, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2018an EAEko eremu sozioekonomikoarentzat hurrengo bost urteetarako berariazko plan estrategiko bat sortzeko erabakia hartu zuen, lan-munduan euskararen erabilera zerbitzu- eta lan-hizkuntza gisa areagotzeko.

Eremu ezberdinetako entitateekin batera, gogoeta eta erabakien partekatzea sustatzen zuen prozesua gauzatu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa badugu. Horrela, sektorearen errealitatea ezagututa, eta hizkuntzen kudeaketan dituen beharrak eta erronkak oinarri hartuta, HPS EAEko eremu sozioekonomiko pribaturako plan estrategikoa zehazten ari da 2019-2023 epealdirako.

Amaitzera noa. Euskal Autonomia Erki-degoan ahalegina egiten ari da hizkuntza-eskubideak bermatzeko, inoiz baino ahalegin handiagoa, bai eremu publikoan, bai pribatuan; herritarrek inoiz baino kontzientzia handiagoa dute euren eskubideei buruz, eta horiek errespetatzeko eskatzen digute. Gainera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lana da herritarren hizkuntza-eskubideen defentsan proaktibo jokatzeko, urraketek egunetik egunera behera egin dezaten. Helmugarako, aldiz, bide luzea geratzen zaigu, baina bidaia honetan bidelagun dauzkagu ELEBIDE, BEHATOKIA, ARARTEKOA eta hizkuntza ofizialen arteko benetako berdintasunaren alde lanean diharduten erakunde, enpresa, elkarte eta herritarrak.